



# Euskal komikigintza feministarantz



TUPUST! KOLEKTIBOA

## Tupust!

Komikia

Txalaparta

120 orrialde

18,00 € (inguru)

14,40 € (inguru) Klub



Aldaketa otsailaren 25a baino lehen

Lehen argitalpen honen gaia «Ni» da eta, ondorioz, antologia hau osatzen duten istorio guztiak niaren inguruan gorpuzten dira; komiki guztiek hitz egiten dute, era batean ala bestean, niari buruz. Komiki hitza erabiltzen dugu bai, baina irakurleek askotariko komikiak aurkituko dituzte *Tupust!* antologian. Batzuk testuaren laguntza dute, beste batzuk soilik irudiak erabiliz eraiki dira. Batzuk bineta,

Orokorrean, umorea eta satira, eta are zehazkiago binetagintza eta komikigintza maskulinitateek gobernatutako esparruak izan dira. Bai, baita gure Euskal Herri honetan ere. Egoerari erreparatzerakoan, harri-garriki beldurtu gintuen ikusteak zeinen tradizional eta heteronormatibo izan garen eta garen istorioen nahiz gorpuzten sorkuntzan eta zeinen espazio gutxi duten eta izan duten ikuspegi binario horri kontra egin eta harata-go joateko nahia izan duten eta gaur egun duten sortzailak. Euskal Herrian oso iraultzaileak izan gara gai jakin batzuen inguruan, baina oso tradizionalak genero-sexu rolen eraikuntzan, estereotipoen betiketzean. *Tupust!* horri guztiari buelta emateko asmoz jaio da.



marrakzi eta testu asko dituzte orrialde bakoitzeko, beste orrialde batzuk irudi (mutu) bakarrarekin betetzen dira. Hamalau komiki, hogeigile, helburu bakarra: komikigintzatik eta euskaraz, eredu tradizional heteropatriarkalaren deseraikitzea. Egitasmo honek tupust egin ez dezan irakurleari dagokio orain konplize bihurtzea, antologian barrena murgildurik.



Euskal Herria ere ez da libratzen akademiak eta industriak hauspotuta mundu mailan bolo-bolo dabilen falazia kontzientzia-anestesiagarritik: emakumeek ez dute komikigintzan, binetagintzan, umoregintzan eta satiragintzan lan egin nahi (eta falazia hori hedatu dute beste hainbat subjektuetara ere. Gizon zuri heterosexual mendebaldarraren eredutik kanpoko subjektuek, hots, besteek —transek, queer jendeak, beltzek, pobreek...— ez omen dute komikia egiteko interesik). Argumentazio hori ahula bezain interesatua da, esparru publikoa

maskulinizatzeaz gain, errealitatearekin etengabe talka egiten duena. Ingurumari horretan interesgarria iruditu zitzaigun martxan jartzea Euskal Herri mailako komiki-antologia-edo-dena-delako-zerbait-feminista-queer-eta-gehitu-nahi-duzuen-guztia. «Hemen gaude!» esateko. Eta sorkuntza zurruneekin apurtzeko. Eta kontatu nahi dugun hori kontatzeko. Gainera, euskaraz. Egile profesionalak egile amateurrekin nahastuz, oso-oso garrantzitsua baita hasiberriak direnei bultzada ematea eta, areago, lehen aukera bat eskaintzea.

## EGILEAK

### Komunitate bat atzean duen egitasmoa

*Tupust!* komiki antologia feminista honen atzean, izen bereko kolektiboa dago. Kolektiboaren helburu nagusienak dira, haien arabera: "komikia eta feminismoa uztartzea; egileen arteko sare bat osatzea; sare hori lan eta proiektu berriak abiarazteko baliatu ahal izatea, izan ditzakegun zalantzak gainontzeko taldekideekin partekatzeko eta, azken finean, elkarri laguntzeko balio dezakeen komunitate bat sortzea; gure intereseko hitzaldi, erakusketa, egitasmo eta abarrak antolatzea eta sustatzea, tartean, *Tupust!* komiki feministaren argitalpena bera".

Amets Gurbiola *Negugogorrek* koordinatutako lehen edizio honetan parte hartu duten egileak ondorengoak dira: Irati Eguren Arruti, Paula Estévez, Arrate Rodriguez, Maite Caballero, Danele Sarriugarte & Josevisky Larratxe, Maite Gurrutxaga & Ira-

ti Jimenez, Irati F.G. & Regina Salcedo, Nerea Unanua Otxoantesana & Amaia Lekunberri Ansola, *Txakur Gorria*, Loinaz Lekuona, Maitane Gartzandia, Ainara Azpiaz Aduriz *Axpi*, Eider Eibar & Miren Amuriza eta Leire Urbeltz & He-  
doi Etxarte.

